EIBARKO UDALA

ekultura

IRAILA 2008 *SEPTIEMBRE*

70



Ikastaroak / *Cursos*

Arrateko Amaren Jaiak

erakusketa / *exposición*

Eibarko Klub Deportiboa Argazki Taldea

IRAILA 2008 SEPTIEMBRE

eguna / *día* — orr. / *pag.*

1 UMEAK ESKOLARA
dirulaguntza ***ayuda*** 13
DIRULAGUNTZAK IKASLEEI
AYUDAS A ESTUDIANTES
dirulaguntza ***ayuda*** 13
VIII. JUAN SAN MARTIN BEKA
beka ***beca*** 14
BEGIRALE TITULUA ATERATZEKO IKASTAROA
matrikulazioa ***matriculación*** 17
J. B. GISASOLA MUSIKA ESKOLA
matrikulazioa ***matriculación*** 18
DIBUJO UDAL ESKOLA
matrikulazioa ***matriculación*** 18
AEK EUSKALTEGIA
matrikulazioa ***matriculación*** 18

3 MSM MESSENGER
KZGunea 14
IT-TXARTELA
KZGunea 14
UDAL EUSKALTEGIA
matrikulazioa ***matriculación*** 18

5 SINADURA ELEKTRONIKOA
FIRMA ELECTRÓNICA
KZGunea 14
IT-TXARTELA
KZGunea 14

7 ARRATEKO AMAREN JAIAK
FIESTAS de Ntra. Sra. de ARRATE
jaiak ***fiestas*** 8

8 ARRATEKO AMAREN JAIAK
FIESTAS de Ntra. Sra. de ARRATE
jaiak ***fiestas*** 8
IT-TXARTELA
KZGunea 14

9 INTERNETEKO OINARRIZKO IKASTAROA
CURSO DE INTERNET BÁSICO
KZGunea 14
ZERAMIKA ESKOLA
matrikulazioa ***matriculación*** 18

10 POSTA ELEKTRONIKA
CORREO ELECTRÓNICO
KZGunea 14


11 SINADURA ELEKTRONIKOA
FIRMA ELECTRÓNICA
KZGunea 14

12 EIBARKO KLUB DEPORTIBOA - ARGAZKI TALDEA
erakusketa ***exposición*** 5
IDOIA ELEZPURU
erakusketa ***exposición*** 5
IT-TXARTELA
KZGunea 14

13 *LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA*
jaiak ***fiestas*** 10

14 ARRATEKO AMAREN JAIAK
FIESTAS de Ntra. Sra. de ARRATE
jaiak ***fiestas*** 8

15 AULA DE MÚSICA: ENTENDER Y DISFRUTAR LA MÚSICA
matrikulazioa ***matriculación*** 16
































eguna día — orr. pag.

15 LA GRAN PINTURA ESPAÑOLA: EL GRECO, VELÁZQUEZ Y GOYA
matrikulazioa ***matriculación*** 16
SUKALDARITZA: LEHEN URRATSAK
COCINA PARA PRINCIPIANTES
matrikulazioa ***matriculación*** 17
KEZKA DANTZA TALDEA
matrikulazioa ***matriculación*** 18

16 SINADURA ELEKTRONIKOA
FIRMA ELECTRÓNICA
KZGunea 14
IT-TXARTELA
KZGunea 14

18 IT-TXARTELA
KZGunea 14

19 ANDREA GONZÁLEZ - JOAQUÍN CLERCH
musika ***música*** 6

21 *BANDA DE MÚSICA* CIELITO MUSIKA BANDA
musika ***música*** 7
ARRATE IZENEKOEN JAIAREN XI. URTEURRENA
XI FIESTA DE LAS ARRATES
jaiak ***fiestas*** 9

22 IT-TXARTELA
KZGunea 14
BANKA ELEKTRONIKA
BANCA ELECTRÓNICA
KZGunea 14
INICIACIÓN A LA FOTOGRAFÍA DIGITAL
matrikulazioa ***matriculación*** 15
FOTOGRAFÍA DIGITAL: NIVEL DE PERFECCIONAMIENTO
matrikulazioa ***matriculación*** 15
AFARIKETAN
matrikulazioa ***matriculación*** 1

25 IT-TXARTELA
KZGunea 14

26 IRATXE GARITAGOITIA - MARIA ROMERO
erakusketa ***exposición*** 5
SINADURA ELEKTRONIKOA
FIRMA ELECTRÓNICA
KZGunea 14

27 AGUR, BELDUR!
ipuin kontalaria ***cuentacuentos*** 4
LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA
jaiak ***fiestas*** 10

28 *LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA*
jaiak ***fiestas*** 10
AGINAGAko JAIAK
FIESTAS DE AGINAGA
jaiak ***fiestas*** 11

29 AGINAGAko JAIAK
FIESTAS DE AGINAGA
jaiak ***fiestas*** 11
IT-TXARTELA
KZGunea 14

30 IT-TXARTELA
KZGunea 14

BIBLIOTECA JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA





Liburutegiak ere ekin dio ikasturteari

Aldapa gora izaten omen da irailekoa lagun askorentzat. Egunerokoari aurre egiteaz gain ikasle askorentzat azterketa garaia izaten da. Horregatik, liburutegiak ere bere ordutegiak zabaldu ditu ikasleei erraztasunak eskaini nahian; zenbait egunetan gauerdira arte zabalduko da liburutegia.

Bestalde, liburutegiak izango duen egitarauari ere ekingo zaio irailean. Iazko martxari jarraituz, ipuin kontalariak izango ditugu umeen liburutegian. Lehena, iraileko azkenengo larunbatean izango da eta ipuina Maite Frankok kontatuko du.

Como es habitual el comienzo de curso suele ser duro para mucha gente, pero sobre todo para los estudiantes. Para hacer frente a esta época de exámenes, la biblioteca ampliará su horario hasta las doce de la noche en algunos días puntuales.

Por otro lado, la programación del nuevo curso está también en marcha. Igual que el curso anterior el último sábado de este mes los más pequeños y no tan pequeños pueden acudir a la cita de la cuentacuentos Maite Franko. Será en la biblioteca infantil.



AGUR, BELDUR!

Maite Franko

ipuin kontalaria — ***cuentacuentos***

Umeen liburutegia — **irailak 27 *septiembre*** 18:00 — ***Biblioteca infantil***

Beldurrezko ipuin barregarriak edo, nahiago baduzu, ipuin barregarri beldulgarriak. Barreak uxatzen baititu beldurrak; eta beldurrak ere barreak erakartzen. Ez al da hala?

BIBLIOTECA JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA

irailak 6, 7, 8 *septiembre*	**itxita / *cerrada***	
irailak	**1, 2, 3, 4, 5, 9, 10**	***septiembre***
astelehena - ostirala	9:00 - 13:30 / 16:00 - 24:00	*lunes - viernes*
irailak 11 - 30 *septiembre*		
astelehena - ostirala	9:00 - 13:30 / 16:00 - 20:30	*lunes - viernes*
larunbat, igande eta jai-egunak	10:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00	*sábados, domingos y festivos*

EIBARKO KLUB DEPORTIBOA
ARGAZKI TALDEA


irailak 12 - 28 *septiembre* **PORTALEA** **www.deporeibar.com/argazkia**

Deporreko argazkilariak prest dira

Irailetik aurrera Portalean egiteko prestatu dituzten erakusketei aurre egiteko prest dira Klub Deportiboko argazkilariak. Talde erakusketa batek emango dio hasiera erakusketa aldi berriari. Lehen erakusketa horrek 24 egile batuko ditu eta azken urteko haien lanik esanguratsuenak egongo dira ikusgai Portalean.
Klub Deportiboko argazkilarien artean honezkero izen ezagunak diren gehienak bertan izango dira. Baita bazkide berriak ere. Jose Antonio Palacios esaterako. Erakusketako kartela ere berea da oraingoan.

Los fotógrafos del "Depor" abren la temporada de exposiciones

Los socios de la sección de Fotografía del Club Deportivo Eibar inauguran un año más la temporada de exposiciones en Portalea. 24 autores, que presentan lo más relevante de sus trabajos fotográficos en los últimos meses, participan en esta muestra colectiva de septiembre. Aunque siguen los habituales, cada año se incorpora a la exposición algún nuevo socio. Es el caso de José Antonio Palacios, quien además es el autor de la tarjeta que en esta ocasión anuncia la exposición.



Jose Antonio Palacios

José Valderrey
Felipe Loyola
José Vila
José Luis Martínez
Virginia Arakistain
José Luis Irigoien
Fernando Retolaza
Vicente Eizagaetxeberria
Jesús Unzueta
José Ignacio Galán
Federico Cuenca
Eider Zabala
Joseba Barrutia
Alberto Luke
José Antonio Palacios
Bakarne Elejalde
Gotzone Merino
Enrique Cialceta
Mikel Orozco
Pedro Arriola
Mateo Guilabert
Aitor Sarasqueta
Asier Garín
Alex Bergara

TOPALEKU

IDOIA ELEZPURU

irailak 12 - 21 *septiembre*

IRATXE GARITAGOITIA
MARIA ROMERO

irailak 26 *septiembre* - urriak 5 *octubre*

ANDREA GONZÁLEZ - JOAQUÍN CLERCH

GITARRA KONTZERTUA — ***CONCIERTO DE GUITARRA***

irailak 19 ***septiembre*** 20:30 10 € ***teatro*** **COLISEO antzokia**



La eibarresa Andrea González tiene 16 años y es ya una guitarrista reconocida internacionalmente.
Comenzó desde muy joven a tocar la guitarra bajo la tutela de su madre Ana Caballero, en la Escuela de Música Juan Bautista Guisasola de Eibar. Hoy en día cursa sus estudios en Alemania bajo la supervisión de Joaquín Clerch, prestigioso músico y guitarrista internacional.

Irailaren 16an, Eibarko Coliseoan, bi musikariek eskainitako kontzertua entzuteko aukera egongo da. Andrearen gaztetasuna eta gaitasuna eta Joaquín Clerch-en esperientzia eta teknika aparta bat eginik.

Andrea González. Gitarra-jolea

"Nire maisuarekin jotzea berezia izango da"

Lehen aldia da zure maisuarekin joko duzula. Zer sentsazio dituzu?
Berezia izango da, dudarik gabe. Lehen aldia izango da. Bere ideia izan zen eta gustura jaso nuen gonbidapena. Niretzako esperientzia garrantzitsua eta interesgarria izango da.

Egitaraua aukeratzeko orduan zer izan duzue kontuan?
Egia esan Joaquinek Clerch-ek aukeratutako piezak dira gehienak. Bi ataletan bakarka joko dugu eta, hirugarren batean elkarrekin. Pieza ezagunak dira gehienak. Berak aukeratu zituen gehienak eta ni itsu-itsuan fidatzen naiz maisuarekin.

Aurten Alemanian aritu zara berarekin gitarra ikasten eta musika ikasketak Eibarren egin dituzu. Zein asmo datorren urterako?
Berdin jarraituko dut. Gitarra Joaquin Clerch-ekin ikasiko dut eta musika ikasketak hemen egingo ditut.Etorkizunean, bi urte barru, Alemanian bukatu nahiko nituzke ikasketak.

Gaztea zara baina, honezkero, hamaika sari zureganatu dituzu. Zure mundua da dudarik gabe.
Txiki-txikitatik elikatu naiz musikaz eta gitarraz. Etxean ikusten nuen. Egia esan, ibilbide hau aukeratu nuenean ez nintzen oso kontziente non ari nintzen sartzen. Baina orain badakit non nagoen eta gustatzen zait mundu hau. Nire mundua da.

Etorkizunerako planik?
Ikasketak bukatu eta ahalik eta bizkorren lana aurkitu nahiko nuke. Zaila da badakit. Oposaketaren bat edo beste prestatu beharko dut akaso. Nire nahia kontserbatorio profesional batean irakasle izatea da eta, noski, kontzertuak ematea. Baina kontzertuetatik soilik bizitzea oso zaila da. Ikusiko dugu.



Ulertu eta maitatu

Musikaren barrenak ezagutu eta maitatu egin behar direla dio Joaquin Clerch gitarra-joleak. Musikari baten zoriontasunik ez dago musikaren hizkuntza ulertzen ez bada. Ama hizkuntza erabiltzen dugun bezala musikak ere sentimenduak, metaforak, hitz soilak eta konplexuak... adierazteko balio behar duela dio Kuban jaiotako musikariak.

Akaso, horregatik, gitarra-jole fina eta poetikoa dela dio kritikari askok. Teknika bikaina du eta interpretazioa eta musika egiteko modua ere paregabea.

Txikitatik darama musikaren sena barrenean. Metalezko gailleta kaxekin perkusioa egiten zuela kontatzen du musikari honek. Gerora, tronpetarekin jo zituela bere lehen notak. Baina gitarra eskuetan aurkitu omen zuen bere adierazpenerako bidea.

Kontzertuak eskaini eta konposatu egiten du Joaquin Clerch-ek. Gitarra-jole gazteen maisua ere bada. Baita Andrea Gonzalez eibartarrarena ere.

Kontzertuaren egitaraua
Programa del concierto

1. zatia **1ª parte**

Joaquín Clerch

La Catedral A. B. Mangoré
Preludio, andante religioso, allegro solemne

Cinco Piezas Astor Piazzolla
Campero
Romántico
Acentuado
Tristón
Compadre

Capricci 5, 24 N. Paganini

2. zatia **2ª parte**

Alfonsina y el mar
Andrea González
Arreglo Joaquín Clerch

Gran Solo Fernando Sor
Andrea González

Piezas españolas Albéniz
Joaquín Clerch - Andrea González

Tango Suite Astor Piazzolla
tango nº 2 y nº 3
Joaquín Clerch - Andrea González

BANDA DE MÚSICA CIELITO MUSIKA BANDA



kontzertua ***concierto***

irailak 21 ***septiembre*** 12:30 ***teatro*** **COLISEO antzokia**

ARRATEKO AMAREN JAIAK 2008
FIESTAS de Ntra. Sra. de ARRATE



irailak 7, Arrate bezpera

- 18:00. **Meza** Arrateko Santutegian, eta ondoren, **Salbea**. Jarraian, **txupinazoa eta kanpai errepika**.
- 19:00. **Herri kirolak**.
- 20:00. **Rock kontzertua** txosnen eskutik.
- 21:00. **Bertso Afaria: Arkaitz Estiballes, Amets Arzallus, Andoni Egaña** eta **Sebastian Lizaso.** Gaijartzailea: **Asier Ibaibarriaga**. Kantabria jatetxean. Sarrera: 24 €. (Sagarbitxa - Kultu - Kantabria - ...eta kitto!). Antolatzailea: "... eta kitto!".

irailak 8, Arrate eguna

- 10:00. Azitaingo surtidoretik irten eta **Arratera igoera**, Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik. **Salda, txorizoa eta ardoa** banatuko dituzte Zesteroko iturrian Betikuak taldeak antolaturik.
- 10:00. **Kittonbola!**
- 10:30. **Kalejira** Eibarko Usartza Txistulari taldearen eskutik.
- 11:00. **Meza Nagusia** Arrateko Santutegian. Kezka dantza taldeak eta Usartza Udal Txistulari taldeak **Arrateko Amaren ezpata-dantza** egingo dute. Ondoren Arrateko Amaren **prozesioa** Usartza Txistulari taldeak, Kezka Dantza Taldeak, bertsolariek eta agintariek lagundurik. **Arrateko Amaren ezpata-dantza** egingo dute. Trikitilariak: Jainaga eta Narbaiza. Bertsolariak: Azpillaga, Meabebasterretxea eta Narbaiza.
- 12:30. Kezka Dantza Taldeak eta Usartza Udal Txistulari Taldeak **Arrateko Amaren Dantzak** aurkeztuko dituzte zelaian: ezpata-dantza eta trokeo-dantzak.
- 13:30. **Trikitilari eta bertsolarien saioa**.
- 14:30. **Lagunarteko Bazkaria Krabelin** Jatetxean.
- 17:00. Ziarda eta Azpillaga **bertsolarien saioa**.
- 17:30. **Dantza solte txapelketa** 15 urtetik gorakoentzat. Gehien jota 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidatuak.

7 septiembre
Víspera de Arrate

- 18:00. ***Misa** en el Santuario de Arrate y **Salve**. A continuación, **chupinazo y volteo de campanas**.*
- 19:00. ***Deporte rural**.*
- 20:00. ***Concierto de rock**, organizado por las txosnas.*
- 21:00. ***Bertso Afaria: Arkaitz Estiballes, Amets Arzallus, Andoni Egaña** y **Sebastian Lizaso.** Pondrá los temas **Asier Ibaibarriaga**. En el Restaurante Kantabria. Entrada: 24 €. (Sagarbitxa - Kultu - Kantabria - ...eta kitto!). Organiza: "... eta kitto!".*

8 septiembre, Día de Arrate

- 10:00. ***Subida a Arrate** desde Azitain, por el camino de los pasos de la Virgen. Reparto de **caldo, chorizo y vino** en la fuente de Zestero organizado por Betikuak.*
- 10:00. ***Kittonbola!***
- 10:30. ***Pasacalle** con la Banda de Txistularis Usartza.*
- 11:00. ***Misa Mayor** en el Santuario de Arrate y **ezpata-dantza de la Virgen de Arrate**. A continuación, **procesión** con la Banda de Txistularis Usartza, Kezka Dantza Taldea bertsolaris y autoridades y **ezpata-dantza de la Virgen de Arrate**. Trikitilaris: Jainaga y Narbaiza. Bertsolaris: Azpillaga, Meabebasterretxea y Narbaiza.*



- 18:00 - 21:30. **BETE ZAITEZ... BAINA EMOZIOZ! Alkoholaren inguruko kanpaina informatzaile eta hezitzailea.** Sasoia elkarteak (osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebentzioa) alkoholemia kontrolak egingo ditu. Antolatzaileak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritza.
- 19:00 - 23:00. **Dantzaldia DRINDOTS** taldearekin.

irailak 14
Kofradia eguna eta baserritar jubilatuen eguna

- 10:30. **Simón Aldazabal XIII. Antxitxiketaldia. Fernando Serranori omenaldia**. Eibarko Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeko bidetik).
- 11:00. **Meza Nagusia** Gorrotxategi eta Narbaiza bertsolariekin. Meza ostean, **ezpata-dantza** Kezka Dantza taldearen eskutik. Ondoren **prozesioa** Usartza Txistularien Bandak lagunduta.
- 12:00. **Pilota partiduak: Arrillaga eta Bengoetxea / Etxaniz eta Egaña**. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.



- 12:00. Eibarko **paella eta gazta lehiaketa**.
- 12:30. **Dantza solte txapelketa** 15 urtetik beherakoentzat Ezenarro eta Agirrebeña trikitilariekin eta Usartza Txistulari Bandarekin. Gehien jota 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidatuak.
- 14:00. **Paella eta gazta lehiaketaren sari banaketa**.
- 14:30. **Jubilatuentzako bazkaria** KANTABRIA Jatetxean. Baserritar nagusiei opariak banatuko zaizkie. Trikitilari eta bertsolariek ere parte hartuko dute.
- 17:30. **Idi probak**.

Antolatzailea: **Eibarko Udala**
Laguntzaileak: **Andirao Elkartea, "... eta kitto!", Betikuak, Eibarko Klub Deportiboa eta Kezka Dantza Taldea**

- 12:30. ***Danzas de la Virgen de Arrate*** *con Kezka Dantza Taldea y la Banda de Txistularis Usartza en la campa de Arrate.*
- 13:30. *Actuación de* ***trikitilaris y bertsolaris****.*
- 14:30. ***Comida de Hermandad*** *en el Restaurante* ***Krabelin****.*
- 17:00. *Actuación de los* ***bertsolaris*** *Azpillaga y Ziarda.*
- 17:30. ***Concurso de baile al suelto*** *para mayores de 15 años, por invitación (máximo, 10 parejas).*
- 18:00 - 21:30. ***LLÉNATE... ¡PERO DE EMOCIÓN! Campaña informativa y educativa sobre el consumo de alcohol****. Sasoia Elkartea (educación para la salud y prevención de drogodependencias) realizará pruebas de alcoholemia. Organiza: Ayuntamiento de Eibar y Dirección de Drogodependencias del Gobierno Vasco.*
- 19:00 - 23:00. ***Verbena*** *con el grupo* ***DRINDOTS****.*

14 septiembre
Día de la Cofradía y los jubilados y las jubiladas

- 10:30. ***XIII Carrera pedestre Simón Aldazabal****.* ***Homenaje a Fernando Serrano****. Salida en el Club Deportivo y subida hasta Arrate por el camino de Orbe.*
- 11:00. ***Misa Mayor*** *con los bertsolaris Gorrotxategi y Narbaiza. A continuación,* ***ezpata-dantza*** *a cargo de Kezka Dantza Taldea y* ***procesión****, acompañada por la Banda de Txistularis Usartza.*
- 12:00. ***Partidos de pelota: Arrillaga y Bengoetxea / Etxaniz y Egaña****. Organiza: Club Deportivo Eibar.*
- 12:00. ***Concurso de paella y de queso****.*
- 12:30. ***Concurso de baile al suelto*** *para menores de 15 años, por invitación (máximo, 10 parejas, con los trikitilaris Ezenarro y Agirrebeña y la Banda de Txistularis Usartza.*
- 14:00. ***Entrega de premios de los concursos de paella y de queso****.*
- 14:30. ***Comida de jubilados*** *en el Restaurante KANTABRIA. Reparto de regalos a los mayores y actuación de* trikitilaris y bertsolaris.
- 17:30. ***Pruebas de bueyes****.*

Organiza: ***Ayuntamiento de Eibar***
Colaboran: ***Andirao Elkartea, "... eta kitto ! ", Betikuak, Club Deportivo Eibar y Kezka Dantza Taldea***

irailak 21
ARRATE IZENEKOEN JAIAREN XI. URTEURRENA

Arratera igoera Ama Birginaren pausoen bide zaharretik, meza, bazkaria , jolasak eta dantzaldia.

21 *septiembre*
XI FIESTA DE LAS ARRATES

Subida a Arrate *por el camino de los pasos de la Virgen. Misa, comida, juegos y baile.*

LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA



Tradizioari jarraituz, irailean, Eibarko Kantabriako elkarteak bere Ama Birjinaren Eguna ospatuko du: Kantabria etxeko bazkideak berriro elkartuko dira beraien folklorea eta tradizioak bizitzeko; eta bide batez eibartar guztiei haien berri emateko.

Fiel a la tradición, la comunidad cántabra de Eibar celebra este mes la festividad de la patrona de su comunidad, la Virgen de la Bien Aparecida. Los socios de la Casa de Cantabria se reunirán un año más para disfrutar de su folklore y de sus tradiciones y para darlas a conocer al resto de eibarreses. Y lo harán en un año especial, pues conmemoran el 50 aniversario de la creación de este centro regional en Eibar. Esta celebración tuvo su máximo exponente en los actos que se llevaron a cabo el pasado mes de junio.

irailak 13
- 17:30. **Toka, igel-toka eta "cuchillo" txapelketa**.
- 20:00. **Sardina jana**.

irailak 27
- 20:30. Cantabriako **La Esperanza de Requejo abesbatzaren emanaldia,** San Pio X parrokian.

irailak 28
- 12:00. **Meza**.
- 13:00. **Piscolabisa**.
- 14:30. **Lagunarteko bazkaria** Arrate Hotelean.



13 de septiembre
- *17:30.* ***Campeonato de toka, rana y cuchillo****.*
- *20:00.* ***Sardinada****.*

27 de septiembre
- *20:30. Actuación del* ***Coro Ronda La Esperanza de Requejo (Cantabria)*** *en la parroquia de San Pío X.*

28 de septiembre
- *12:00.* ***Santa Misa****.*
- *13:00.* ***Piscolabis****.*
- *14:30.* ***Comida de Hermandad*** *en el Hotel Arrate.*

Antolatzailea / *Organiza*: **Casa de Cantabria**

AGINAGAko JAIAK
FIESTAS DE AGINAGA





irailak 28
San Miguel bezpera

- 11:00. **Meza nagusia**
- 12:00. **ZERUTXU Dantza Taldearen emanaldia**.
- 14:00. **Paella jana herrikoia** trikitilariekin alaituta.
- 18:00. **Kanpai iraulketa** eta **txupinazoa** jaiei hasiera emanez.

irailak 29 - San Miguel eguna

- 11:00. **Meza nagusia** abesbatza eta txistulariekin.
- 12:00. **Hamarretakoa** eta umeendako jolasak.
- 14:00. **Lagunarteko bazkaria** Usartza txistulari taldearekin.

Urriak 4

- 17:00. **Briska txapelketa**.
- 17:30. **Umeendako jolasak: gaztelu puzgarriak, pelota partiduak, diskoteka** eta **txokolate jana**. Joku berezia: "Feliperen oparia"
- 21:00. **Lagunarteko Afaria.**
- 23:00. **Erromeria, KUPELA taldearekin**. Goizaldera, **txokolate janav**

Urriak 5

- 11:00. **Meza nagusia Goruntz** abesbatzarekin.
- 12:30. **Lunch-a** eta **Gorritiren abereak**.
- 17:00. **Idi probak.** Pisu librean bustarri bat eta kintopeko bi bustarri.

28 de septiembre
Víspera de San Miguel

- *11:00.* ***Misa mayor***
- *12:00.* ***Actuación*** *de* ***ZERUTXU Dantza Taldea.***
- *14:00.* ***Paellada popular*** *amenizada por trikitilaris.*
- *18:00.* ***Volteo de campanas y chupinazo*** *de inicio de fiestas.*

29 de septiembre - día de San Miguel

- *11:00.* ***Misa mayor*** *con coro y txistularis.*
- *12:00.* ***Piscolabis*** *y* ***juegos infantiles****.*
- *14:00.* ***Comida de hermandad****, con la Banda de Txistularis Usartza.*

4 de octubre

- *17:00.* ***Campeonato de brisca****.*
- *17:30.* ***Juegos infantiles: castillos hinchables, partidos de pelota, discoteca*** *y* ***chocolatada****.*
- *21:00.* ***Cena de hermandad****.*
- *23:00.* ***Romería, con el grupo KUPELA.****. De madrugada,* ***chocolatada****.*

5 de octubre

- *11:00.* ***Misa mayor*** *con el coro* ***Goruntz****.*
- *12:30.* ***Lunch*** *y* ***Gorriti y sus animales****.*
- *17:00.* ***Pruebas de bueyes****.*

Antolatzailea / *Organiza*: **Agiña Elkartea**

INDALECIO OJANGUREN XXI. ARGAZKI LEHIAKETA
XXI CERTAMEN DE FOTOGRAFIA INDALECIO OJANGUREN

2007/2008 ARGIZAIOLA LEHIAKETAREN SAILKAPENERAKO BALIAGARRIA
CLASIFICATORIO PARA EL CERTAMEN ARGIZAIOLA 007/2008



Dei-egilea: Eibarko Udala, Udako Eibarko Klub Deportibo eta Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkartearen laguntzarekin.
Lanak: Gehienez ere 3 argazki zuri eta beltzean, eta 3 koloretan. Inoiz saritu gabeak izan beharko dira.

Convoca: Ayuntamiento de Eibar, con la colaboración del Club Deportivo Eibar y la Federación de Agrupaciones Fotográficas del País Vasco.
***Obras:** Máximo de 3 fotografías blanco y negro y 3 color por participante, no premiadas en ningún otro certamen.*

EGUTEGIA / CALENDARIO

lanak aurkezteko epea	**urriak 13 *octubre***	*plazo de admisión de obras*
erabakia	**urriak 18 *octubre***	*fallo público*
sari-banaketa	**urriak 31 *octubre***	*entrega de premios*
erakusketa	**urriak 31 *octubre* - azaroak 16 *noviembre***	*exposición*

informazioa **PEGORA** ***información***

"ASIER ERRASTI" EIBARKO IX. LABURMETRAIA JAIALDIA
IX FESTIVAL DE CORTOMETRAJES DE EIBAR "ASIER ERRASTI"



Dei-egilea: Eibarko Udala, Plano Corto Kultur Elkartearen laguntzarekin.
Lehiaketan bi sail izango dira: fikzioa eta animazioa, DVDz eginda.

Convoca: Ayuntamiento de Eibar, con la colaboración de la Asociación Cultural Plano Corto.
***2 secciones a concurso: ficción y animación, en formato DVD**.*


Lanak aurkezteko epea	**urriak 11 *octubre***	*Plazo de admisión de obras*

informazioa **PEGORA** ***información***

SANANDRESAK 2008 EIBARREN KARTEL LEHIAKETA
CONCURSO DE CARTEL SANANDRESAK 2008 EIBARREN

Lanak aurkezteko epea	**urriak 23 *octubre***	*Plazo de admisión de obras*

informazioa **PEGORA** ***información***





UMEAK ESKOLARA 2008 - 2009

ONURADUNAK: **1993ko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umeak. Eibarko Erroldan daudenak.**

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: Ume bakoitzeko, gehien jota, **60,10 €**

LAGUNTZAREN ZERTARAKOA: **Eskolarako umeak behar duen materiala erosteko -testu-libururik ez-, hau da: kirol materiala, erropak, oinetakoak...** Erosketak Eibarko dendetan egin behar dira irailaren 1etik abenduaren 1era bitartean.

BENEFICIARIOS: ***niños y niñas empadronados en Eibar y nacidos entre el 1 de enero de 1993 y el 31 de diciembre de 2002.***


CUANTÍA: *un máximo de* ***60,10 €***

OBJETO: ***compra de material escolar - excepto libros-: material deportivo, ropa, calzado,...*** *Las compras se realizarán en establecimientos comerciales de Eibar entre el 1 de septiembre y el 1 de diciembre.*

eskaerak aurkezteko epea ***plazo de presentación de solicitudes***

irailak 1 *septiembre* - abenduak 1 *diciembre*

informazioa **PEGORA** ***información***



DIRULAGUNTZAK IKASLEEI 2008
AYUDAS A ESTUDIANTES

ONURADUNAK: **irakaskuntza arautuko edo lanbide-prestakuntzako ikasleei zuzenduta.** Ez dute laguntzarik jasoko ikasketa osagarriak egiten dabiltzatenek (masterrak, doktoradoa, hizkuntza, informatika-erabiltzaile, gidatze-karneta...)

1983ko urtarrilaren 1etik 1992ko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoa izatea.

LAGUNTZAREN ZERTARAKOA: **joan-etorrietarakoa, ikasketa-materiala erostekoa, kirolean jardutekoak, erropak edo oinetakoak erostekoa (testu-libururik ez) Eibarko dendetan.**

BENEFICIARIOS: ***eibarreses/as que se hallen cursando estudios de enseñanzas regladas u ocupacionales,*** *excluyéndose formación complementaria (masters, doctorado, idiomas, Informática usuario, carnet de conducir, etc.)*

Nacid@s entre el 1 de enero de 1983 y el 31 de diciembre de 1992

OBJETO: ***transporte o adquisición de material escolar, material deportivo, ropa y calzado, etc. (se excluyen libros de texto) en establecimientos comerciales de Eibar.***

eskaerak aurkezteko epea ***plazo de presentación de solicitudes***

irailak 1 *septiembre* - abenduak 1 *diciembre*

informazioa **PEGORA** ***información***

VIII. JUAN SAN MARTIN BEKA 2008



Dei-egilea: **Eibarko Udala, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin**.
Ikerketa esparruak: **ARTEA - MENDIZALETASUNA**

Informazioa	**PEGORA - PORTALEA**	***información***
epea	**irailak 1 - urriak 10**	***plazo***

El Ayuntamiento de Eibar, junto con la UEU, convoca una nueva edición de la Beca Juan San Martín, con la que se pretende rendir homenaje a este insigne eibarrés. En esta ocasión las disciplinas sobre las que tienen que tratar los trabajos, en euskara, son Arte y Montañismo.

IKASTAROAK *CURSOS*

interneteko oinarrizko ikastaroa
Interneten hasteko ikastaroa. Web orrietan nabigatzea, informazioa bilatzea, posta elektronikoa...
curso de internet básico
Introducción al manejo del ordenador, navegación por páginas web, búsqueda de información, correo electrónico...
- **irailak 9 - 19 *septiembre*** 18.00-20.00

mintegiak / *seminarios*
msn messenger
msn messenger
- **irailak 3 *septiembre*** 11.00-13.00

sinadura elektronikoa
Ikastaro honek, sinadura elektronikoa zer den erakusten digu eta ONA edo Herritar txartelak nola erabiltzen diren ikusten da.
firma electrónica
Este curso nos da a conocer qué provecho le podemos sacar a las tarjetas Ciudadano y ONA de Izenpe.
- **irailak 5 *septiembre*** 16.00-18.00
- **irailak 11 *septiembre*** 6.00-18.00
- **irailak 16 *septiembre*** 16.00-18.00
- **irailak 26 *septiembre*** 11.00-13.00

banka elektronika
Gure banketxearekin kontsultak edo transferentziak nola eginten dira Internetez ikusiko dugu.
banca electrónica
Cómo realizar consultas, transferencias, cómo operar con las tarjetas,... a través de Internet.
- **irailak 22 - 23 *septiembre*** 9.00-11.00

posta elektronikoa
Ikasi Outlook Express erabiltzen.
correo electrónico
Cómo utilizar el gestor de correo Outlook Express.
- **irailak 10 *septiembre*** 16.00-18.00

it_txartela
Informazioaren Teknologien Erabileraren Egiaztagiria
IT-Txarelari buruzko informazio guztia **www1.eeuskadi.net** orrialdean aurkituko duzu.
it_txartela
certificado de usuario de Tecnologías de la Información.
Toda la información sobre las pruebas en ***www1.eeuskadi.net***

Iraileko azterketa frogen datak
Fechas de las pruebas de septiembre
- **irailak 3-8-18-22-30 *septiembre*** 16.00
- **irailak 5 *septiembre*** 18.00
- **irailak 12-16-25-29 *septiembre*** 11.00

INICIACIÓN A LA FOTOGRAFÍA DIGITAL



Argazkigintza dijitala ezagutuko da eta **oinarrizko kontzeptu eta teknikak** ikasiko dira, **baliabide informatikoak erabiliz.** Ikastaroa **Jose Valderrey**ek emango du eta **16 urtetik gorakoentzat** izango da. Ikastaroa **gazteleraz** izango da.

Non eta noiz: PORTALEA - urriak 13, 15, 20, 22, 27, 29
azaroak 3, 5, 10, 12, 17, 19.

Ordutegia: astelehen eta asteazkena, 19:00 - 21:30.

Ikastaroaren prezioa: 49 € Eibarren erroldatuta daudenentzat eta
65 € Eibarren erroldatuta ez daudenentzat.

El objetivo del curso es acercarse a la fotografía digital y aprender una serie de conceptos y técnicas básicas utilizando herramientas informáticas**. Será impartido por **José Valderrey** y está destinado a personas a partir de **16 años**. El curso será en **castellano.

***Lugar y fechas de celebración:** PORTALEA. 13, 15, 20, 22, 27, 29 de octubre
3, 5, 10, 12, 17, 19 de noviembre.*

***Horario:** lunes y miércoles 19:00 - 21:30.*

***Precio:** 49 € para personas empadronadas en Eibar y 65 € para las no empadronadas en Eibar.*

informazioa eta izenemateak **PEGORA** ***información e inscripciones***

irailak 22 *septiembre* - urriak 8 *octubre*

FOTOGRAFÍA DIGITAL: NIVEL DE PERFECCIONAMIENTO



Argazkigintza dijitalari buruzko ezagutza **sakondu eta baita kontzeptu eta teknika berriak** ikasiko dira, **baliabide informatikoak erabiliz**. Ikastaroa **Jose Valderreyek** emango du eta **16 urtetik** gorakoentzat izango da. Ikastaroa **gazteleraz** izango da.

Non eta noiz: PORTALEA. urriak 14, 16, 21, 23, 28, 30
azaroak 4, 6, 11, 13, 18, 20.

Ordutegia: astearte eta osteguna, 19:00 - 21:30.

Ikastaroaren prezioa: 49 € Eibarren erroldatuta daudenentzat
65 € Eibarren erroldatuta ez daudenentzat.

***El objetivo es profundizar en la fotografía digital y aprender una serie de conceptos y técnicas básicas utilizando herramientas informáticas**. Será impartido por **José Valderrey** y está destinado a personas **a partir de 16 años**. El curso será en **castellano**.*

***Lugar y fechas de celebración**: PORTALEA. 14, 16, 21, 23, 28, 30 de octubre
4, 6, 11, 13, 18, 20 de noviembre.*

***Horario**: martes y jueves 19:00 - 21:30.*

***Precio**: 49 € para las personas empadronadas en Eibar y 65 € para las no empadronadas en Eibar.*

informazioa eta izenemateak **PEGORA** ***información e inscripciones***

irailak 22 *septiembre* - urriak 8 *octubre*

AULA DE MÚSICA: ENTENDER Y DISFRUTAR LA MÚSICA



Musika-hizkuntzaren klabeak ezagutu eta beharrezko jarraibideak eskuratzea du helburu, musika-formak, bere edukia, bilakaera, kolorea... ezagutzeko. Hori guztia lantzeko autore eta lan ezberdinak erabiliko dira. **Ikastaroaren helburua musika-hizkuntzara hurbiltzea da**; gozatuz ikastea, eta musika ezagututa gozatzea. Ikastaroa **Adela Bueno**k emango du eta **16 urtetik gorakoentzat** izango da. Ikastaroa **gazteleraz** izango da.

Non eta noiz: Musika Eskolako auditorioa

urriak 13, 20, 27; azaroak 3, 10, 17, 24; abenduak 1,15, 22.

Ordutegia: astelehenetan 19:00 - 20:30.

Ikastaroaren prezioa: 28 € Eibarren erroldatuta daudenentzat
45 € Eibarren erroldatuta ez daudenentzat.

Ikasle kopurua: gutxienez 10 eta gehienez, 40.

*Este curso pretende acercarse a las claves del lenguaje musical para obtener las pautas necesarias para reconocer sus formas y su diferenciación, su contenido, su evolución, su color... todo ello escuchando diferentes obras y autores. El objetivo de este curso es **acercarse a la música**, de forma que sea posible aprender disfrutando y conocer para disfrutarla. Será impartido por **Adela Bueno** y está destinado a personas **a partir de 16 años**. El curso será en **castellano**.*

***Lugar y fechas de celebración**: Auditorio de la Musika Eskola.*

13, 20, 27 de octubre; 3, 10, 17, 24 de noviembre; 1, 15, 22 de diciembre.

***Horario**: lunes, de 19:00 - 20:30.*

***Precio del curso**: 28 € para personas empadronadas en Eibar y 45 € para las no empadronadas en Eibar.*

***Número de alumnos/as**: mínimo 10 máximo 40.*

informazioa eta izenemateak **PEGORA** ***información e inscripciones***

irailak 15 *septiembre* - urriak 8 *octubre*

LA GRAN PINTURA ESPAÑOLA: EL GRECO, VELÁZQUEZ Y GOYA








Helburua **hiru margolari bikain hauek ezagutzea** da: El Greco eta ekialdeko eragina bere margolanetan, kolore bizi eta forma bereziekin. Velázquez eta bere ezkutuko harmoniak, argia, espazioa eta giroa margotuz. Eta azkenik, Goya, izaera bizikoa eta neurriz kanpokoa bere margolanetan, espresibitate handia eta teknika ausartak erabiliz, edertasuna eta gozotasuna zatarkeriarekin eta irrigarrikeriarekin bateratuz. Ikastaroa **Ricardo Aldama**k emango du eta **16 urtetik gorakoentzat** izango da. Ikastaroa **gazteleraz** izango da.

Non eta noiz: Portaleko Musika Eskolako auditorioa.

urriak 14, 21, 28; azaroak 4,11,18, 25; abenduak 2, 9 eta 16.

Ordutegia: astelehen eta asteazkena, 10:00 - 11:30.

Prezioa: 28 € Eibarren erroldatuta daudenentzat, eta 45 €, Eibarren erroldatuta ez daudenentzat.

Ikasle kopurua: gutxienez 10 ikasle, eta gehienez 40.

E*l objetivo del curso es **conocer a estos tres grandes pintores**. El Greco y los ecos orientales en sus obras, con sus llamaradas de color y licencias de formas. Velázquez, dueño de armonías secretas que pinta lo intangible como la luz, el espacio y la atmósfera. Y por último, Goya, temperamental y excesivo, con su expresividad y osadías técnicas, conjugando lo bello y lo dulce con lo feo y lo grotesco. Será impartido por **Ricardo Aldama** y está destinado a personas **a partir de 16 años**. El curso será en **castellano**.*

***Lugar y fechas de celebración:** Auditorio de la Musika Eskola.*

14, 21, 28 de octubre 4, 11, 18, 25 de noviembre y 2, 9 y 16 de diciembre.

***Horario:** martes, 10:00 - 11:30.*

***Precio :** 28 € para las personas empadronadas en Eibar y 45 € para las no empadronadas en Eibar.*

***Número de alumnos/as**: mínimo 10 máximo 40.*

informazioa eta izenemateak **PEGORA** ***información e inscripciones***

irailak 15 *septiembre* - urriak 8 *octubre*


SUKALDARITZA: LEHEN URRATSAK
COCINA PARA PRINCIPIANTES

Ikastaroan sukaldaritza modu erosoan eta ludikoan ezagutuko da eta **oinarrizko errezetak** eta **eguneroko menu** desberdinak prestatzen ikasiko dira. Ikastaroa **Unai Magunazelaia**k (Deba Beheko Lanbide Hastapenaren ikastetxeko irakaslea) emango du eta **16 urtetik gorakoentzat** izango da. Ikastaroa **gazteleraz eta euskaraz** izango da.

Non eta noiz: PORTALEA - irailak 29
urriak 1, 6, 8, 13, 15, 20, 22.

Ordutegia: astelehen eta asteazkena, 19:00 - 21:00.

Prezioa: 37 € Eibarren erroldatuta daudenentzat
45 € Eibarren erroldatuta ez daudenentzat.



*El objetivo del curso es acercarse a los fogones de forma lúdica y aprender una serie de **recetas básicas** y elaborar diversos **menús diarios**. Será impartido por **Unai Magunazelaia** (Profesor del Centro de Iniciación Profesional de Deba Behea) y está destinado a personas **a partir de 16 años**. El curso será en **castellano y euskara.***

***Lugar y fechas de celebración:** PORTALEA. 29 septiembre; 1, 6, 8, 13, 15, 20, 22 de octubre.*

***Horario:** Lunes y miércoles 19:00 - 21:00.*

***Precio:** 37 € para personas empadronadas en Eibar y 45 € para las no empadronadas en Eibar.*

informazioa eta izenemateak **PEGORA** ***información e inscripciones***

irailak 15 - 26 *septiembre*

BEGIRALE TITULUA ATERATZEKO IKASTAROA EUSKARAZ

Gure herrian haurren aisialdian lan egingo duten **begiraleak euskaraz formatzeko ikastaroa** antolatu du Eibarko Udaleko Euskara eta Kultura Sailak Debabarreneko gainontzeko udalekin batera.

Ikastaroa **urritik maiatzera** bitartean izango da, **larunbatetan** goizez eta arratsaldez, eta bi atal izango ditu, atal **praktikoa** eta atal **teorikoa**. Bukaerako praktikak egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak ematen duen begirale titulu ofiziala jasoko dute ikasleek.



Ikastaroa egin ahal izateko, hiru baldintza hauek bete behar dira:

- **18 urte baino gehiago edukitzea edota ikastaroa bukatzean betetzea**
- **Euskaraz jakitea**
- **Eibarren erroldatua egotea**

Ikastaroaren matrikula prezioa ***440 euro***koa izango da eta bi alditan ordaintzeko aukera izango dute ikasleek, erdia ikastaroaren hasieran eta gainontzekoa ikastaroaren erdialdera. Ikasleek praktikak Eibarko aisialdi egitasmoetan egiten badituzte Udalak matrikularen erdia itzuliko die.

Izena emateko epea irailaren 1etik 15era izango da, beraz, interesa duenak bere datuak eman beharko ditu PEGORAN (hiritarren zerbitzurako bulegoa, Untzaga plaza 1, telefonoa: 010).

Curso para obtener el título oficial de monitor de tiempo libre. Requisitos indispensables: tener cumplidos 18 años o cumplirlos durante el curso, saber euskera y estar empadronado en Eibar.

informazioa eta izenemateak **PEGORA** ***información e inscripciones***

irailak 1 - 15 *septiembre*

DIBUJO UDAL ESKOLA

matrikulazioa / *matriculación*
irailak 1 - 19 *septiembre*

informazioa **PEGORA** ***información***

ZERAMIKA UDAL ESKOLA

matrikulazioa / *matriculación*
irailak 9 - 23 *septiembre*

informazioa **PEGORA** ***información***

J. B. GISASOLA MUSIKA ESKOLA

matrikulazioa / *matriculación*
irailak 1 - 19 *septiembre*

informazioa **PEGORA** ***información***

UDAL EUSKALTEGIA

matrikulazioa / *matriculación*
irailak 3 - 23 *septiembre*

informazioa UDAL EUSKALTEGIA *información*

Bista Eder, 10 Tel . 943 700 912

AEK EUSKALTEGIA

matrikulazioa / *matriculación*
irailak 1 - 26 *septiembre*

informazioa AEK EUSKALTEGIA *información*

Sostoatarren, 1 Tel . 943 201 379

KEZKA DANTZA TALDEA

matrikulazioa / *matriculación*
irailak 15, 16, 17 *septiembre*

18:00 - 19:00 **PORTALEA**n

informazioa **Tel. 605 711 429** ***información***

AFARIKETAN

Matrikulazioa / *matriculación*
irailak 22, 23 *septiembre*

16:00 - 18:00 **ludoteketan** (Amaña, Urki, Urkizu)

irailak 24 - 26 *septiembre*

10:00 - 13:00 **PORTALEA**n.

informazioa **ASTIXA** ***información***

Zezenbide, 7 Tel . 943 206 231

EIBARKO UDALA www.eibar.net *AYUNTAMIENTO DE EIBAR*

PEGORA - Untzaga Plaza, 1 Tel: 010 / 943 708 400 - pegora@eibar.net

irailak 1-15 *septiembre*

astelehena - ostirala	9:00 - 13:30	*lunes - viernes*

irailak 16-30 *septiembre*

astelehena - ostirala	9:00 - 13:30	*lunes - viernes*
astelehena - osteguna	17:00 - 19:30	*lunes - jueves*

PORTALEA Bista Eder, 10 tel. 943 708 439 cultura.ei@eibar.net

irailak 6, 7, 8 *septiembre* **itxita / *cerrado***

irailak 1-5 *septiembre*

astelehena - ostirala	8:00 - 21:00	*lunes - viernes*

irailak 9-30 *septiembre*

astelehena - igandera	8:00 - 22:00	*lunes - domingo*

ERAKUSKETA ARETOA ***SALA DE EXPOSICIONES***

asteartea - igandea	18:30 - 20:30	*martes - domingo*

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA tel. 943 708 437 biblioteca.ei@eibar.net

irailak **1, 2, 3, 4, 5, 9, 10** ***septiembre***

astelehena - ostirala	9:00 - 13:30 / 16:00 - 24:00	*lunes - viernes*

irailak 11 - 30 *septiembre*

astelehena - ostirala	9:00 - 13:30 / 16:00 - 20:30	*lunes - viernes*
larunbat, igande eta jai-egunak	10:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00	*sábados, domingos y festivos*

ARMAGINTZAREN MUSEOA tel.943 708446 museo.ei@eibar.net ***MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA***

www.armia-eibar.net

asteartea - igandea	16:00 - 20:00	*martes - domingo*

teatro COLISEO antzokia Merkatu kalea, 2 tel. 943 206 342 cultura.ei@eibar.net

sarrerak leihatila - asteartetan, 20:00etatik aurrera, eta emanaldi egunetan ordu bat lehenago.
entradas *taquilla - los martes, a partir de las 20:00, y una hora antes los días de función.*
SERVIKUTXA TELEKUTXA 943 001 200
www.kutxa.net

ERROTA GAZTELEKUA Karmen, 3 tel. 943 820 105

astelehena - osteguna	18:00 - 20:00	*lunes - jueves*
ostirala	17:00 - 21:30	*viernes*
larunbata	16:30 - 21:30	*sábado*
igande eta jai-egunak	16:30 - 20:30	*domingos y festivos*

ARRATE KULTUR ELKARTEA TOPALEKU Zuloagatarren, 3 tel. 943 202 299

www.geocities.com/arratekultu

astelehena - ostirala	19:00 - 21:00	*lunes - viernes*
larunbat, igande eta jai-egunak	12:00 - 14:00 / 19:00 - 21:00	*sábados, domingos y festivos*

Kz GUNEA Karmen, 3 tel. 943 120 390

www.kzgunea.net

astelehena - ostirala	9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00	*lunes - viernes*

[e] kulturak bere ekintzen berri eman nahi duten herriko talde eta elkarte guztiei ateak zabaltzen dizkie.
Zure etxean jaso nahi baduzu PORTALEAn edo PEGORAn eskatu.

[e] kultura *abre sus páginas a todos los grupos y asociaciones locales que quieran informar de sus actividades.*
Si quieres recibir la guía en tu domicilio, solicítalo en PORTALEA o en PEGORA.

argitaritzailea: Eibarko Udala / koordinatzailea: Kultura, Euskara eta Hezkuntza Saila
idatziak, diseinu eta maketazioa: ARBI Edición / inprimategia: GERTU / Tirada: 7.000 ale

ZERAMIKA UDAL ESKOLA

matrikulazioa **irailak 9 - 23** ***septiembre*** ***matriculación***
informazioa **PEGORA** ***información***

Eskuak erabiliz mundu berri bat ezagutu

En noviembre la Escuela Municipal de Cerámica, ubicada en Portalea, cumplirá 25 años. Un trayecto que ha proporcionado experiencia e innovación a esta escuela, de la mano de Esther Galarza y Asun Poza.

Utilizando las manos se descubren nuevos mundos, a veces inimaginables.

Tras matricularse, la escuela ofrece todos los materiales necesarios para el alumnado.











Esther Galarza. Irakaslea

"Norberari egokituta eskaintza ematen saiatzen gara"

Zazpiko taldeetan egiten dute lan eta bi irakasle daude zeramika eskolan. Haurrak alde batetik eta helduak bestetik. Astean birritan, bi orduko saioak izaten dituzte ikasleek.

Norberaren maila eta eskakizunei erantzuten saiatzen dira; "Ikasle bakoitza mundu bat delako".

Zer lantzen duzue urtean zehar?

Ikasturte hasieran, jendea berotzeko eta taldean murgiltzen joateko taldekako lanak antolatzen ditugu. Esaterako, Raku teknika lantzen dugu, ekialdeko teknika bat da eta labea kalera ateratzen dugu. Gerora, beste hainbat teknika lantzen dugu, banaka eta taldeka. Gabonetako jaiotza, ikasturte bukaerako erakusketa… kanpora begirako ekintzak dira.

Zeintzuk dira eskolaren helburuak ikasleekiko?

Bakoitzaren helburuei erantzutea nahi diegu. Berez hau trebaketa bat da eta neurrira egindakoa gainera. Beraz, maila profesionala landu nahi duenak hemen du aukera. Baita eskuak askatu nahi dituenak ere. Baina helburu nagusia ongi pasatzea izan da beti. Dena dela, norberari egokituta eskaintza ematen saiatzen gara beti.

Zein da buztinaren ezaugarria?

Kontaktua, bolumena. Eskua lantzen duzu; atzamar bakoitzak bere funtzioa du eta eskua erabiltzen duzu. Beraz, hainbat gauza lan daiteke; psikomotrizitatea, zeramikaren historia, tornua, labea, artea, artisautza… Ofiziotik artera pasatzen den bide guztia lantzeko aukera ematen du zeramikak. Eta guk guzti hori eskaintzen saiatzen gara.

Eta eskolaren ezaugarriren bat?

Oso garaikideak gara. Bestelako zeramikak ere lantzen ditugu: euskal tradiziokoak edo beste tradizio batzuetakoak baina gure ikuspegitik betiere. Garaikideak gara batik bat.